

LEHENGO ETA ORAINGO JOLASAK

Deskribapena: Lehenik, gurutzegramak txapelketa bateko irudiak agertzen dira. Ondoren, marrazki bizidunen eta animaziozko irudien bitartez, *neandertal* batzuk ageri dira jolasean. Jarraian, joko batzuen irudiak ageri dira: ume batzuk txingora jolasten, kaniken jolasa eta tortoloxkak.

Kike (off ahotsa): Gurutzegramak egitea joko bakartia da, horregatik ondo dago urtean behin bada ere elkartu eta afizioa partekatzea. Izan ere, gizakia, gizaki denetik, jolasteko beharra izan baitu: txingoka, kaniketan, tortoloxekin...

Deskribapena: Kike kalean sokasaltoan agertzen da.

Kike: “Laurogeita hemezortzi, laurogeita hemeretzi eta ehun!”

Deskribapena: Kike sokasaltotik irteten da.

Kike: “eta sokasaltoa. Denak jolas tradizionalak dira eta seguru gure aitona eta amonek ere jolasgarri izan zituztela.”

Deskribapena: Elgetan, Kike aiton-amon desberdinekin banan banan elkarrizketan ageri da.

Kike: “Txikitako ze jolas dauzkazu gogoan?”

Lehenengo emakumezkoa: “Bueno ba nik tortoloxkak.”

Kike: “Aja, horiek zian, e tortoloxkak zian hezurtxoak, ez?”

Lehenengo emakumezkoa: “Bai, hori da bildotsanak, bildotsan hezurak eta gero holan botatzen zan gora eta hari buelta emon.”

Lehenengo gizonezkoa: “Txirikilean asko ibiltzen ginen. Makilatxo bat hamar zentimetrokoa punta bixekin ja jaurti eta bestiak hartzen.”

Lehenengo emakumezkoa: “Aitak iten zeuzkun aroa, mangu batekin hara eruatzen ginan serian.”

Lehenengo gizonezkoa: “Monedekin be bai. Monedak bazterrea botatzen eta gehixen paretan kontra arrimatzen danak ba harek danak beretako.”

Lehenengo emakumezkoa: “Eta gero txantxirrika be bai.”

Kike: “Txantxirrika?”

Lehenengo emakumezkoa: “Txantxirrika, lurrean itten ginuan holako lauki haundi bat, eta gero numeroak bat, bi, hiru, lau eta gero hankiakin harri lixo bat, hankiakin jo eta ba inoiz arrexka gelditzen zan eta orduan ba galdu.”

Bigarren emakumezkoa: “Askotan ibiltzen ginen sokasaltuan.”

Lehenengo emakumezkoa: “Pelotan be itten genuen guk, e! Pelotan be bai!”

Lehenengo gizonezkoa: “Intxaurrekin, torriak in. Ba hogeit bat metroa jarri da han jotebanak ba danak beretako.”

Bigarren emakumezkoa: “Bale-baleka, bale-baleka esaten dotzu danak ezkutau ta bat geratu holan eta gero harek topau in ber zittuan danak.”

Bigarren gizonezkoa: “Potxi-potxika esateuken. Potxolo bat zan, zulotxo bat inda euken, laukix bat ta botatzen zian hara intxaurrak, bakoitzian bat ta barruan sartzen zianak libre ta beste danak, zeinek sartzen zeban, inguruan geratzen zianak repartitu iten zien da...”

Hirugarren emakumezkoa: “Gu kozinaketan asko itten gendun.”

Kike: “Kozinaketan.”

Hirugarren emakumezkoa: “Kozinaketan.”

Bigarren gizonezkoa: “Kaizturrian esaten dakon. Intxaurre txikiena dakanak ipintzen zan hor e, dibujo edo irudi horren erdixan zeakin, jotakailua edo jotel arixa esaten dakon eta zian tartakina eta motela. Tartakina saltuak itten zitxuan eta motela ba sikatua dakena ba parte hartzen zan eta ba harekin. Segun ze komenigarri, erdikoa jutea nahi bazenuan zenbat eta pixu gehio joten eta hala! Eta bestia, motela zan ba, terraz bota eta aldamenekuakin eta ez agertzeko.”

Hirugarren emakumezkoa: “Gero, ba, munekak, trapu zaharrekin egindakok eta...”

Kike: “Nolakoak?”

Hirugarren emakumezkoa: “Ba, holan bi bildu eta buelta emon eta gero zapatak kajetan eta erakutsi zenien ba gordetan eta estimau harek...”

Hirugarren gizonezkoa: “Goitibeheria ta hemendik Urerra ta hamendik Urerra ta frenua ta makila bi ta bixak sartuz gero frenau itten zun; bata sartutakoan itteukan, “ziz”.”

Hirugarren emakumezkoa: “Ta holako sokasaltoka aldatu itten sokasaltua be bai, bale-baleko be bai asko.”

Kike: “Eta zuen artean nola itten zenuten jolasetan euskeraz edo erderaz?”

Hirugarren gizonezkoa: “Euskeraz.2

Hirugarren emakumezkoa: “Erderaz asko. Ordun eskolie erderaz itten genduen eta...”

Bigarren emakumezkoa: “Erderaz kantatzen ginuan, ze euskerazko kantuik ez zegoen hola txikitan.”

Kike: “Bai? Eta ze kantu zien hola erderaz?”

Bigarren emakumezkoa: “*El barquero* eta ba bueno...”

Lehenengo emakumezkoa: “Ba nik pentsatzen dot kuadrilan eta holan euskeraz itten genula, baina eskolan erderaz.”

Kike: “Eta orain, aiton-amonengandik Elgetako haurrengana joko dugu!”

Deskribapena: Kike eskolan haurrekin hizketan ageri da.

Kike: “Eta zuek elkarrekin zaudetenian zertan jolasten zeate?”

Lehenengo bikotea: “Futbolean, bai.”

Lehenengo mutila: “E, ni jolasten naiz lagunekin harrapaketan eta futbolian.”

Bigarren mutila: “E, futbolian.”

Lehenengo bikotea: “Batzutan harrapaketan, ezkutaketan eta hola.”

Bigarren mutila: “Biltzen gara, e, borobilan eta bat gelditzen da erdixan eta joaten gara pasatzen erdikoak hartu barik baloia.”

Lehenengo neska: “Kalian saskibaloian...”

Kike: “Eta etxian zaudetenian eta zertan?”

Lehenengo bikotea: “Futbolian eta...”

Kike: “Etxian?”

Lehenengo bikotea: “Bai, bueno jardinian.”

Bigarren mutila: “Playstation-ian.”

Lehenengo neska: “Eta gero etxian Wii-xan eta Nintendoan.”

Lehenengo bikotea: “Ipad-ean.”

Bigarren mutila: “Tablet-ian.”

Lehenengo neska: “Eta mahai jokuetan.”

Kike: “Ikusi dugunez, aiton-amonek era batera jolasten zuten eta beraien bilobek oso modu desberdinean jolasten dute gaur egun, baina hori bai, jolasteko gogoia ez da galdu.”